

Julen Zalsalo

EHUKO IRAKASLEA

Berritasunik bai trantsiziorako proposamenean

Batasunak aurkeztu berri dituen Ipar eta Hego Euskal Herrirako proposamen berriak direla eta, iritzi kontraesankorrak plazaratu dituzte gainerako alderdi abertzale gehienek: Ezker Abertzalearentzat berritzat jo dute batzuek; eta esandakoetan berritasunik ez egotea leporatu diote besteei.

Hala ere, Ezker Abertzaleak halako proposamenak egitea ez da batere berria, eta bai oso zaharra. Izan ere, orain dela hogeita hamar urte hori besterik ez zuen eskatzen KAS alternatibak Hego Euskal Herrirako. Bigarren kritikari dagokionez, aldiz, kezka bat sortu zait: adierazi nahi da, berria ez izateagatik, baliorik ez duela? Egia esanda, ohikoa izaten da, baten batek proposamen berria egitean, proposamen berriak berritasunik ez duela esatea. Hor egoten da gakoa joko politikoan: berritzat aurkeztzen zen gauza bati berritasunik ez duela esaten badiozu, bere indarraren erdia kentzen diozu hasiera-hasieratik; berria ez bada, baliorik ez duela esan nahi du.

Zer proposatzen dute gainerako alderdi abertzaleek, orduan, zerbait berria ala zerbait zaharra? Nik nahiago nuke zaharrari eutsiko balio, eta adere handiagoz, gainera. Azken batean, orain proposatzen dena oraindik lortuta ez egotearen erruaren zati bat orduko



INIGO AZKONA

EAJri dagokio —oraingo EAJ gehi EA, hortaz—, zalantza barik. Erruaren zatirik handiena espainiar nazionalismoaren ikuspuntua islatu zuen armadari eta hura guztia onartu zuten alderdi espainiarrei dagokie, ez dut ezkutatu, baina ordu hartan Hego Euskal Herrian zegoen giroa kontuan hartuta, goizegi eman zuen amore EAJk. Arinegi heldu zion bere botere arlotxoari, Nafarroa Garaian zuen indar mugatua gogoran, ziurrenik, eta ordutik hona, dinamika horretan jarraitu du. Ezagun da orain berriro gogorarazi duten Ibarretxe Plana bera begi txarrez ikusten zuela EAJ barruko sektore garrantzitsu eta boteretsu batek.

Alferrikakoa da esatea “hori aspaldi proposatu nuen nik”, proposamen horri kemenik ez bazaio ipini. Eta momentu honetan hori behar dela uste dut, oraingo proposamenak, helburu zaharra edukita ere, berritasun erabakigarri bat ekartzen du eta: gatazka politikoa gainditzeko tresna gisa aurkeztea, alegia. Alderdi abertzale guztiek inoiz egin dituzten halako proposamenen analisisian sartu gabe, gero eta pertzepzio handiagoa dago gatazka politikoren konponbidea hurbil egon daitekeela, eta alderdi abertzale guztiek bat egin beharko lukete konponbidearen gakoetako bat trantsizio berri bati ekitea dela esatean, orain arte esana dute eta. ■

«
Ohikoa izaten da, baten
batek proposamen berria
egitean, proposamen
berriak berritasunik ez
duela esatea
»

TXANDAN

Andoni Mujika



Plazeraren mekanismoa aktibatzen da gure berezko ezaugarriari erantzuten diegunean, gure espezieak jaso duen konfigurazio genetikoren herentzian datozen premiak asetu ahala:

POZAREN BERTSIO EZKUTAGARRIA. Lehenengo plazer mota honen aitortza lotsagarria da gehienontzat. Hurkoaren zorigaitzek eta liskarrek sortzen diguten plazerari buruz dihardut. Inor ez asalatzeko —neu ere ez— plazer txiki bati buruz nabilela esango dut. Esaterako: futbol partidatoko borrorak, kotxe gidariaren arteko eztabaidak, bikote “lagun” baten gorabeherak, zurrumurru gordinez buelta eta buelta jardutea...

Hiru plazer

horrek ez du gure erabateko suntsipena iradoki ere egin behar. Besteak beste, ezkutaketan ibiltzerakoan, umeei atzetik jarraitzean, abiadura bilatzean... bizi dugu.

ZURE ZORIONAZ POZTU. Guztiok sentitzen omen dugu, baina ez. Sentitu baino, sentitzen dugula esaten dugu. Baten bati leitu nion hauxe zela norbait benetan maite dugun —ala ez— jakiteko adierazlerik garbientakoa. (...) Kontuak kontu, harrigarria da zein jaki ezberdinekin asetzen dugun gure gosea. ■